

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5023

54/2021 EBAZPENA, irailaren 28koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita argitara ematea itunpeko ikastetxe pribatuei zuzeneko dirulaguntzak emateko Erabakia. 2021-2022 ikasturtean hezkuntza-laguntzako espezialistak kontratatzeako gastuetarako emango dira dirulaguntza horiek, hain zuzen ere hezkuntza-premia bereziak dituzten eta hezkuntza-laguntza horren beharra duten ikasleak eskolatzeagatik dela ikasgela arruntetan, dela zereginen ikaskuntzarako geletan.

Gobernu Kontseiluak, 2021eko irailaren 28ko bilkuran, itunpeko ikastetxe pribatuei zuzeneko dirulaguntzak emateko Erabakia hartu zuen. 2021-2022 ikasturtean hezkuntza-laguntzako espezialistak kontratatzeako gastuetarako emango dira dirulaguntza horiek, hain zuzen ere hezkuntza-premia bereziak dituzten eta hezkuntza-laguntza horren beharra duten ikasleak ikasgela arruntetan edo zereginen ikaskuntzarako geletan eskolatzeagatik. Erabaki horri dagokion publikotasuna emateko, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara ematea itunpeko ikastetxe pribatuei zuzeneko dirulaguntzak emateko Erabakiaren testua. 2021-2022 ikasturtean hezkuntza-laguntzako espezialistak kontratatzeako gastuetarako emango dira dirulaguntza horiek, hain zuzen ere hezkuntza-premia bereziak dituzten eta hezkuntza-laguntza horren beharra duten ikasleak eskolatzeagatik dela ikasgela arruntetan, dela zereginen ikaskuntzarako geletan (ikus eranskina).

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 28a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN IRAILAREN 28KO 54/2021 EBAZPENARENA

AKORDIOA, 2021EKO IRAILAREN 28KOA, GOBERNU-KONTSEILUARENA, ITUNPEKO IKASTETXE PRIBATUEI ZUZENEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO, 2021-2022 IKASTURTEAN HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO ESPEZIALISTAK KONTRATATZEN LAGUNTZEKO, HEZKUNTZA-LAGUNTZA BEREZIA BEHAR DUTEN IKASLEETATIK BALIABIDE HORI BEHAR DUTEN IKASLEAK ESKOLATZEAGATIK, DELA IKASGELA ARRUNTETAN DELA ATAZAK IKASTEKO IKASGELETAN

Oinarrizko Hezkuntzako, Haur Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumak ezartzen dituzten eta curriculumok Euskal Autonomia Erkidegoan ezarri dituzten 236/2015, 237/2015 eta 127/2016 Dekretuek xedatutakoaren arabera, hezkuntza inklusiboa zera da: ume eta gazte guztiek kalitateko hezkuntza jasotzeko aukera berdinak izango dituztela ziurtatzen duen hezkuntza, ikasle guztientzat justua eta bidezkoa. Hezkuntza inklusiboak bakoitzak hezkuntza-arloan behar dituen aukerak eta laguntzak eman behar dizkie ikasle guztiei, gai izan daitezen behar bezalako garapen akademiko eta pertsonala izateko eta beren autonomia garatzeko. Testuinguru egokia sortu behar da, bakoitzari egokitua, desberdintasunei erantzuten diena eta talderik edo pertsonarik ahulenei babes eta laguntza zehatzak emango dizkiena.

Bestalde, ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak (hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna antolatzen duena) 11. artikuluan ezartzen du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailak, gaur egun Hezkuntza Sailak, garatuko dituela garatu beharreko xedapen administratibo guztiak, itunpeko ikastetxe pribatuetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei arreta emateko behar dituzten baliabide espezifikoek hornidura zehazteko.

Itunpeko ikastetxe pribatuetan, ikasgela arruntetan nahiz atazak ikasteko ikasgeletan (aurrerantzean, AII) HPBak dituzten ikasleei eman beharreko arretaren zati bat hezkuntza-itunaren bidez ematen da. Azken urteotan, gainera, Hezkuntza Laguntzako Espezialistak (aurrerantzean HLE) kontratatzeke dirulaguntzen deialdi bat egin da urtero.

Kontuan hartuta hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak (aurrerantzean HLPB, HPB baino kontzeptu zabalagoa) onartzeko obligazioa dutela itunpeko ikastetxeek (118/1998 Dekretuaren 7.4 artikulua), eta, ondorioz, hezkuntza-administrazioak arreta emateko behar dituzten baliabideak hornitu behar dizkiela ikastetxe horiei (118/1998 Dekretuaren 9. artikulua), hezkuntza-zerbitzu publikoa emateko betebeharrari lotuta doanez, Hezkuntza Saileko Hezkuntza Aniztasunerako eta Gizarteratzeko Zuzendaritzak zehatz zenbatetsita ditu ikastetxe bakoitzak 2021-22 ikasturtean beharko dituen HLE langileak.

Itunpeko ikastetxeetan zenbat HLE beharko dituzten jakiteko estimazioa irakaskuntza publikoko aurreikuspenen irizpide berberekin egiten da, hau da, matrikulazioko datuak aintzat hartuta eta eskola horietako ikasleetatik HLPBak dituztenetatik ikasleen W67 aplikazio informatikoan erregistratutako HPBen datuetan oinarrituta. Kalkulu hori urtero egiten da, ikastetxeetan matrikulatutako ikasleak urte batetik bestera alda baitaitezke, bai eta haien premiak ere.

Bestalde, HLE langileak kontratatzeke diruz lagundu beharreko zenbatekoa zehazteko, zonako Berritzeguneetako HPBen aholkularitzek ikastetxe horietako ikasleen HPBei buruz egiten dituzten eta HLPBak dituzten ikasleen W67 aplikazio informatikoan erregistratzen dituzten aurreikuspenetan oinarrituko dira.

Beraz, 2021-2022 ikasturterako proposatzen da gastu horiek guztiak, interes publikoagatik eta gela arruntetan nahiz zereginen ikaskuntzarako geletan hezkuntza-laguntzako espezialistak kontratatzeke beharragatik justifikatuta daudenez, zuzeneko dirulaguntza bidez ordaintzea.

Dirulaguntza hori, Hezkuntza Saileko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan dago Plana Hezkuntzako sailburuaren 2021eko martxoaren 23ko Aginduaren bidez onartu zen, eta Eusko Jaurlaritzaren egoitzan elektronikoa argitaratuta dago; honako helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/plan-estrategico-de-sbvenciones/web01-s2hhome/es/>

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.7 artikuluan ezarritakoaren arabera jardungo da. Artikulu horren arabera, laguntzak edo dirulaguntzak zuzenean ematea Jaurlaritzaren eskumena izango da, interesa duen saileko sailburuaren proposamenez. Gainera, zuzeneko dirulaguntza horiek salbuespenezkoak izango dira, eta justifikazio arrazoituaren eta memoria dokumentalaren bidez egiaztatu beharko dira dirulaguntza justifikatzen duten interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak. Hemen proposatzen den dirulaguntzak behar bezala betetzen ditu baldintza horiek.

Azaldutako guztiagatik, Hezkuntzako sailburuaren proposamenez eta gaia eztabaidatu ostean, Gobernu Kontseiluak erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Lehenengoa.– Xedea eta helburua.

Akordio honen xedea da, ezarritako estipulazioen arabera, I. eranskinean zerrendatutako hezkuntza-ituna duten Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeei (I. eranskinean datoz) dirulaguntzak ematea, 2021-2022 ikasturterako HLE langileak kontratatzeke gastuak finantzatzeko, ikasgela arruntetan nahiz zereginen ikaskuntzarako geletan jardun daitezzen, 21 urtetik beherako ikasleei autonomiarekin eta curriculum lantzearekin lotutako zereginetan laguntzen.

Bigarrena.– Onuradunak.

Dirulaguntza zuzen honen onuradunak I. eranskinean jasotako itunpeko ikastetxe pribatuetako pertsona edo erakunde titularrak dira, zergatik eta 2021-2022 ikasturtean gela arruntetan edo zereginen ikaskuntzarako geletan eskolatuko dituztelako desgaitasunen edo jokabide-nahaste larrien ondoriozko HPBak dituzten 21 urtetik beherako ikasleak, eta HLE kontratatu beharko dutelako, ikasle horiei behar duten hezkuntza-erantzuna emateko moduan izango badira.

Hirugarrena.– Kontratatzeke diruz lagunduko diren HLE langileen titulazioa, betekizunak, funtzioak eta zereginak.

1.– Sare publikoan halakoak kontratatzeke eskatzen den eran, 2021-2022 HLE berriek titulazio hauetako edozein edo haien baliokidea eduki beharko dute:

- Gizarteratzeko Goi Teknikaria.
- Haur Hezkuntzako Goi Teknikaria.

2.– Kontratatutako langileek zerbitzua emango duten ikastetxeko hizkuntza-ereduarekin edo -ereduekin bat datorren hizkuntza-eskakizuna izan beharko dute.

3.– Kontratatzekotan, HLE profesionalak ezin dute epai irmo bidezko zigortuta egon sexu-askatasunaren eta kaltegabetasunaren aurkako delituren batengatik. Horretarako, ikas-

tetxeak Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13. artikuluko 5. paragrafoan ezarritakoa betetzen dela ziurtatu beharko du. Lege hori Umeak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legearen bidez ezarri zen.

4.– HPBak dituzten ikasleen autonomia eta curriculumerako sarbidearekin erlazionatutako zereginak egingo ditu HLE pertsonalak, hezkuntza-izaerako (ez irakaskuntzakoa) gaitasun profesionalaren ekarpena eginez, eta erreferentziako Berritzeguneko HPB aholkularitzekin lankidetzan, horiek zehaztuko baitituzte HLE bakoitzak egin beharreko egiteko eta zereginei buruzko orientazio egokiak zein diren dagozkion ikasleekiko jarduketa-planaren esparruan. Laguntza jaso dezaketen HPBak curriculum lantzeko eta honako hauekin erlazionatutako gaitasun egokitzailaetarako dira:

- Nork bere burua zaintzeko.
- Jokaera eta komunikazioa lantzeko.
- Trebetasun motorrak lantzeko.
- Nork bere burua erregulatzeko.
- Komunitatea erabiltzeko.
- Osasuna eta segurtasuna lantzeko.

5.– Honako hauek izango dira HLE langileen eginkizunak, batzuk zuzeneko arreta ematekoak, beste batzuk koordinaziokoak:

– Autonomia eta irisgarritasunarekin erlazionatutako jarduketa-planak egin, aplikatu eta horien jarraipena egitea irakasleekin edo tutorearekin, hori behar duten HPBdun ikasleentzat.

– Biziki parte hartzea ikastetxeko gainerako pertsonalarekin HPBak dituzten ikasleei arreta eta zaintza ematen, jolas-orduetan nahiz atsedendietan, erraztasunak emateko gainerako ikasleekin erlazio egokia sortzen.

– Laguntza eta aholkularitzarako profesionalekin (fisioterapeutak, irakasle espezializatuak, HPBen aholkularitzak, etab.) parte hartzea beren presentzia eskatzen duten HPBdun ikasleekin bideratuko diren jarduketetan.

– Laguntza osagarriko profesionalekin (fisioterapeuta, irakasle espezializatuak, terapeuta okupazionala...) lankidetzan jardutea HPBak dituzten ikasleek curriculumera sartzeko behar dituzten altzariak, materialak eta laguntza teknikoak egokitu eta erabiltzen.

– Laguntza behar duten HPBdun ikasleei laguntzea eskola-jarduera garatzeko egin beharreko joan-etorrietan.

– Istripurik balego, laguntza ematea edo istripuak prebenitzeko eta lehen laguntzako teknikak aplikatzea, ezarritako jarduketa-protokoloak eta -jarraibideak jarraituta.

– Beren kompetentzia profesionalaren barruan artatuta dituzten ikasleei buruzko informazioa ematea.

Laugarrena.– Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1.– Ikastetxe itundu pribatuetan 2021-2022 ikasturterako HLE irakasleak kontratatzeak eragindako gastuak ordaintzen laguntzeko, guztira, 15.023.114,33 euro emango dira, honela bananduta urteko aurrekontuetan:

2021eko urriaren 1a, ostirala

2021ean: 3.755.778,85 euro.

2022an: 11.267.335,48 euro.

Dirulaguntzaren zenbatekoa Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan egotziko da, zehazki, atal hauetan: Hezkuntza Sailburuordetzako Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzan (23) eta Haur eta Lehen Hezkuntzan (4221).

21.0.1.07.23.0003.1.455.11.42210.003/M

21.0.1.07.23.0003.2.455.11.42210.003/N

21.0.1.07.23.0003.3.455.11.42210.003/P

2.– Ikastetxe bakoitzari dagozkion HLE langileak kontratatzekeo zenbatekoa kalkulatzeko, honako arau hauek hartu dira kontuan:

Laguntzen zenbatekoa ezingo da inola ere handiagoa izan soldata osoa gehi Gizarte Segurantzakoa baino (eta estrei eta oporrei dagokien proportzioa) kontratatutako HLE bakoitzeko. Horretarako, oinarri gisa kostu garbi hau hartu dugu kontuan, Gizarte Segurantza barne 33.519,55 euro urteko, astean 35 orduz lan eginez. Zifra horietan oinarrituta kalkulatu da HLE batek egindako lan-ordu bakoitzeko kostu garbia, Gizarte Segurantza barne, urteko egiazko lanaldia kontuan hartuta. Kostu hori 24,11 eurokoa izango litzateke.

Laguntzen kopuruen kalkuluak 2021-2022 ikasturteari dagokion aldiaren arabera egingo dira, hau da 2021eko irailaren 1etik 2022ko abuztuaren 31ra arte, eta asteko dedikazio-orduen arabera.

Astean zenbat HLE behar diren kalkulatzeko, ikasleek behar duten laguntzaren intentsitatea hartuko da kontuan, irizpide hauen arabera:

Laguntza behar duen eta laguntza-intentsitate mugatuarekin erregistratuta dagoen ikasle bakoitzeko: 6,25 ordu astean.

Laguntza behar duen eta laguntza-intentsitate hedatuarekin erregistratuta dagoen ikasle bakoitzeko: 8,3 ordu astean.

Laguntza behar duen eta intentsitate orokorrarekin erregistratuta dagoen ikasle bakoitzeko: 12,5 ordu astean.

Laguntza behar duen eta intentsitate intentsiboarekin erregistratuta dagoen ikasle bakoitzeko: 25 ordu astean.

Aldizkako laguntzek edo unean-uneokoez ez dute justifikatuko HLE pertsonalaren horniduraren beharra.

Ikasleentzako zuzeneko arretako 25 ordu bakoitzeko (aurreko irizpideen arabera): koordinazio-ordu 1.

3.– Ikastetxe bakoitzari emango zaion zenbatekoa eta dirulaguntzaren guztizkoa I. eranskinean jaso dira. Ikastetxe bakoitzari dagokion zenbatekoa kalkulatzeko, kontuan hartu dira, batetik, 2021eko irailaren 8an hezkuntza-laguntzako espezialisten laguntza behar duten W67 aplikazio informatikoan matrikulatuta eta erregistratuta dauden ikasleak, eta, bestetik, premia horiek dituzten eta ikastetxean eskolatze partekatua modalitatean artatzen diren ikasleak (nahiz hezkuntza bereziko ikastetxe batean matrikulatuta egon, ikastetxera ordu batzuetan joaten diren ikasleak). Kalkulua egiteko, aurreko atalean adierazitako irizpideak hartuko dira kontuan.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko 2021eko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak onartu dituen otsailaren 11ko 1/2021 Legearen 37.1 artikuluan oinarrituta, baimenduta dago kontu honetan 5.000.000,00 eurotik gorako kontua egitea, hain zuzen, 15.023.114,33 euro.

Bosgarrena.– Komunikatzea, eta hasieran aurkeztu beharreko agiriak.

I. eranskinean zerrendatutako ikastetxeen pertsona edo erakunde titularrek, erabaki honen bidez emandako dirulaguntzaren onuradun izango direnek, dirulaguntza eman zaiela adierazteko jakinarazpena jasoko dute akordioa onartu ondoren. Segidan, telematikoki eta 2021eko urriaren 15a baino lehen, diruz lagundutako gastuen aurreikuspen-memoria (II. eranskina) aurkeztu beharko dute. Memoriak honako hauek jaso beharko ditu, gutxienez:

Kontratutako HLE langileen zerrenda zehatza, honako hauek zehaztuta:

Izen-abizenak.

Pertsona bakoitza zer lanalditarako kontratatu den (edo ordu gehigarriak, lanaldia lehendik dau den langileentzat luzatu bada).

Zein hizkuntza-eredutan egingo duen lan.

Titulazioa.

Zer hizkuntza-eskakizun dagokion.

1.– Kontratutako HLE pertsonalaren kontratuak.

2.– Kontratutako HLE langileek eskatutako titulazioa eta beren lana zer eredutan egingo duten jakinik, horren arabera hizkuntza-eskakizuna dutela egiaztatzen duen dokumentazioa.

3.– Kontratutako langileak sexu-askatasunaren eta sexu-kaltegabetasunaren aurkako delituen bat egiteagatik inongo epai irmoz inolako kondenarik ez dutela egiaztatzeko dokumentazioa.

Seigarrena.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Emandako dirulaguntzen onuradun diren itunpeko ikastetxe pribatuetako pertsona edo erakunde titularrek dirulaguntza horiek kudeatzeko izapide guztiak kontsultatu eta egingo dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

2.– Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak eta PLATEA E-Administrazio Plataforma Teknologikoa onartzen duen Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenak arautzen dute izapidetze elektronikoa.

3.– Izapideak bide elektronikoz nola egin, zer dokumentazio-eredu erantsi behar diren eta horren inguruko gainerako izapideak honako helbide elektronikoa honetan daude eskuragarri: www.euskadi.eus/servicios/0041409

4.– Justifikazioa «Nire karpeta» atalaren bidez egingo da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/micarpeta>

Zazpigarrena.– Laguntza emateko prozedura eta organo eskudunak.

1.– Erabaki hau aplikatuz, dirulaguntza hauek zuzenean emango zaizkie I. eranskinean zerrendatutako ikastetxe itundu pribatuetako titular diren pertsona edo erakunde guztiei.

2.– Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza izango da dirulaguntzak kudeatzeko organo eskuduna.

Zortzigarrena.– Bateragarritasun araubidea.

Emandako dirulaguntzak bateragarriak dira helburu bererako beste erakunde publiko edo pribatu batzuek ematekoak dituzten beste batzuekin, beti ere finantzazio bikoitzik eragiten ez badute. Hortaz, beste dirulaguntza edo laguntza batzuk jasoz gero, horren berri eman beharko da.

Baldin gastu baterako dirulaguntza edo laguntza bat baino gehiago jasoko balitz, eta horren ondorioz diruz lagundutako jardueraren kostuaren gainean soberakina sortuko balitz, itzuli egin beharko litzateke, bai eta dagokion berandutze-interesa ere (DLO, 37.3 artikulua.).

Bederatzigarrena.– Ordainketak.

Dirulaguntza hiru epetan ordainduko da:

– Lehenengoa, emandako guztizkoaren % 25, Gobernu Kontseiluak akordio hau onartu ondoren eta ikastetxeek langileak kontratatu dituztela eta ezarritako baldintzak betetzen dituztela justifikatu ondoren ordainduko da.

– Bigarrena, emandako guztiaren % 37,5, 2022ko otsailean.

– Hirugarren eta azken ordainketa, gainerako % 37,5a, 2021-2022 ikasturtea amaitu ondoren eta jasotako dirulaguntza osorik justifikatu ondoren.

Hamargarrena.– Justifikazioa.

1.– Ikasturtea amaitu ondoren, eta 2022ko urriaren 15a baino lehen, ikastetxe onuradunetako pertsona edo erakunde titularrek amaierako justifikazio-memoria (III. eranskina) bidali beharko dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>). Memoria horren helburua da frogatzea kontratazioak egin, egin direla, justifikatu direla eta ez dela gainfinantzaketarik egon. Memoria horrek, gutxienez, honako dokumentazio hau jasoko du, formatu elektronikoa edo kopia digitalizatuetan:

Diruz lagundu den kontratazioari dagozkion gastuen eta sarreraren balantzea, dirulaguntza jaso duen ikastetxe pribatu itunduaren idazpurua daraman paperean eta haren legezko ordezkariak sinatuta.

Nominak eta Gizarte Segurantzako kotizazio-buletinak, egindako gastuen baliokideak, inondik ere.

Zinpeko aitorten esplizitua, diruz lagundutako kontrataziorako beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jasotako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuei buruzkoa. Halakorik jaso bada, dirulaguntza eman duen erakundearen izena eta zenbatekoa adierazi beharko dira, dirulaguntza jaso duen itunpeko ikastetxe pribatuaren idazpurudun paperean, haren legezko ordezkariak sinatuta.

2.– Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak zehatz begiratuko ditu egoki irizten dituen justifikazioak, ikusteko diruz lagundutako ekintzak zenbateko gastua izan duen, behar bezala kontrolatzeko dirulaguntza zorrotz aplikatu dela. Besteak beste, badu onuraduneri eskatzerik hasieran eskatu eztao justifikanteak ere, onuradunek hasieratik ondo gordeta eta eskura izan behar dituzte-eta.

3.– Aurkeztutako justifikazioaren ondorioz egiaztatzen bada dirulaguntzak benetan egindako gastuak gainditzen dituela, dirua itzultzeko egoki den prozedura abiaraziko da.

Hamaikagarrena.– Onuradunen betebeharrak.

1.– Dirulaguntza emateko garaian ezinbesteko ziren baldintzak nola edo hala aldatu bazaizkie, berehala jakinarazi beharko diote zerbait aldatu dela Aniztasun eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzari Ikastetxe itundu pribatuetako pertsona edo erakunde titular izanik, dirulaguntzaren onuradun izan direnek. Aldaketa horien berri ez ematea nahikoa arrazoi izango da laguntza errebokatzeko.

2.– Dirulaguntza zer helburutarako eman den, zuzenki horretarako erabiltzea; hau da, W67 aplikazio informatikoan ageri den ikasleei arreta emateko, hezkuntza-laguntzako espezialisten laguntza behar baitute. Laguntza hori 2021eko irailaren 8an kontabilizatu da, I. eranskinean.

3.– Era berean, dirulaguntza jaso duten ikastetxetako pertsona edo erakunde titularrek nahitaez bete beharko dituzte Administrazio emaileak egoki irizitako egiaztapenak, bai eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Administrazioaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egingo dizkietenak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

4.– Gainera, egunean izan beharko dituzte zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, hala xedatzen baitu Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 1991ko urriaren 7ko Aginduak (urriaren 15eko EHAA, 208. zk.). Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du onuradunek betebeharrak horiek zorrotz betetzen dituztela; horretarako, ez du haien baimenik behar izango, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, sail eskudunaren bitartez, ikastetxeetan auditoretzak egiterik izango du, emandako datuak egiazkoak direla egiaztatzeko.

Hamabigarrena.– Dirulaguntza emateko erabakia aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, eta, nolahi ere, aldi berean beste ekarpen batzuk lortzen badira arauetan baimendutako kasuetatik kanpo, dirulaguntza emateko erabakia aldatu egin daiteke, dirulaguntzei buruzko legerian ezarritako baldintzetan.

Hamahirugarrena.– Laguntza itzultzea eta ez-betetzeak.

1.– Erabaki honetan emandako dirulaguntza jasotzeko ezarritako edozein baldintza edo betebeharrak betetzen ez badira, edo azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikuluan ezarritako kasuren bat gertatzen bada (besteak beste, laguntza ez erabiltzea diruz lagundu daitezkeen gastuetarako), arrazoi nahikoa izango da laguntza kobratzeko eskubidea galdu dela eta/edo itzuli behar dela erabakitzeko, lege horretan ezarritako prozedurarekin bat etorriz.

2.– Laguntza itzultzeko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 42. artikuluan horretarako ezarritako prozedurari jarraituko zaio, bidezkoak diren gainerako ekin-tzak alde batera utzi gabe.

AZKEN APARTATUETAKO LEHENENGOA

Onartuko den egunetik aurrera izango ditu ondorioak erabaki honek; ondoren, eta emandako dirulaguntzak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Zuzendari-

2021eko urriaren 1a, ostirala

tzak argitaratuko ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, zenbatekoa eta ikastetxea adierazita.

AZKEN APARTATUETAKO BIGARRENA

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bi kasuetan.

2021eko urriaren 1a, ostirala

AKORDIOAREN I. ERANSKINA

Lurraldea	Kodea	Ikastetxea	Orduak, guztira	Guztira €	€ 2021 %25	€ 2022 %75
Araba	010160	CPEIPS Aresketa Ikastola HLBHIP	65,00	62.250,50	15.562,63	46.687,87
Araba	010170	CPEIP Bastida Ikastola HLHIP	13,00	12.450,10	3.112,53	9.337,57
Araba	010173	CPEIPS Assa Ikastola HLBHIP	13,00	12.450,10	3.112,53	9.337,57
Araba	010174	CPEIPS Audio Ikastola HLBHIP	91,00	87.150,70	21.787,68	65.363,02
Araba	010188	CPEIPS Olabide Ikastola HLBHIP	60,67	58.100,47	14.525,12	43.575,35
Araba	010195	CPEIPS Amaurre HLBHIP	47,67	45.650,37	11.412,59	34.237,78
Araba	010199	CPEIPS La Milagrosa HLBHIP	52,00	49.800,40	12.450,10	37.350,30
Araba	010202	CPEIPS Lautada Ikastola HLBHIP	52,00	49.800,40	12.450,10	37.350,30
Araba	010216	CPEIPS Calasanz HLBHIP	190,67	182.601,47	45.650,37	136.951,10
Araba	010218	CPEIPS Hogar San Jose HLBHIP	43,33	41.500,33	10.375,08	31.125,25
Araba	010219	CPEIPS Inmaculada Concepción HLBHIP	21,67	20.750,17	5.187,54	15.562,63
Araba	010221	CPEIPS Urkide HLBHIP	130,00	124.501,00	31.125,25	93.375,75
Araba	010222	CPEIPS Nazareth HLBHIP	34,67	33.200,27	8.300,07	24.900,20
Araba	010223	CPEIPS Niño Jesús HLBHIP	199,33	190.898,34	47.724,59	143.173,75
Araba	010224	CPEIPS Ntra. Sra. De Las Mercedes HLBHIP	73,67	70.550,57	17.637,64	52.912,93
Araba	010228	CPEIPS Presentación De María HLBHIP	153,83	147.322,99	36.830,75	110.492,24
Araba	010229	CPEIPS Carmelitas-Sagrado Corazón HLBHIP	175,50	168.076,35	42.019,09	126.057,26
Araba	010233	CPEIPS San Viator HLBHIP	43,33	41.500,33	10.375,08	31.125,25
Araba	010234	CPEIPS Santa María HLBHIP	212,33	203.351,63	50.837,91	152.513,72
Araba	010235	CPEIPS Sagrado Corazón HLBHIP	78,00	74.700,60	18.675,15	56.025,45
Araba	010237	CPEIPS Vera Cruz HLBHIP	104,00	99.600,80	24.900,20	74.700,60
Araba	010239	CPEIPS Ceu Virgen Niña HLBHIP	56,33	53.950,43	13.487,61	40.462,82
Araba	010244	CPEIPS Paula Montal HLBHIP	49,83	47.725,38	11.931,35	35.794,03
Araba	010251	CPEIPS Pedagógica San Prudencio S.C.L. HLBHIP	186,33	178.451,43	44.612,86	133.838,57
Araba	010311	CPEIPS Armentia Ikastola HLBHIP	82,33	78.850,63	19.712,66	59.137,97
Araba	010540	CPEIPS Geroa Waldorf Eskola HLBHIP	60,67	58.100,47	14.525,12	43.575,35
Araba	010616	CPEIP Nc Learning Investigation Center HLHIP	21,67	20.750,17	5.187,54	15.562,63
Araba	010663	CPES Egibide BHIP	158,67	114.125,92	28.531,48	85.594,44
Bizkaia	014493	CPEIPS Andra Mari Ikastola HLBHIP	23,83	22.825,18	5.706,30	17.118,88
Bizkaia	014494	CPEIPS Lauaxeta Ikastola HLBHIP	88,83	85.075,68	21.268,92	63.806,76
Bizkaia	014495	CPEIPS Abusu Ikastola HLBHIP	140,83	134.876,08	33.719,02	101.157,06
Bizkaia	014502	CPEIPS Eleizalde Ikastola HLBHIP	56,33	53.950,43	13.487,61	40.462,82
Bizkaia	014505	CPEIPS Artxandape Ikastola HLBHIP	84,50	80.925,65	20.231,41	60.694,24
Bizkaia	014507	CPEIPS Begoñazpi Ikastola HLBHIP	130,00	124.501,00	31.125,25	93.375,75
Bizkaia	014512	CPEIPS Kirikiño Ikastola HLBHIP	69,33	66.400,53	16.600,13	49.800,40
Bizkaia	014516	CPEIPS Urretxindorra Ikastola HLBHIP	114,83	109.975,88	27.493,97	82.481,91

2021eko urriaren 1a, ostirala

Lurraldea	Kodea	Ikastetxea	Orduak, guztira	Guztira €	€ 2021 %25	€ 2022 %75
Bizkaia	014518	CPEIPS Kurutziaga Ikastola HLBHIP	52,00	49.800,40	12.450,10	37.350,30
Bizkaia	014521	CPEIPS Eguzkibegi Ikastola HLBHIP	82,33	78.850,63	19.712,66	59.137,97
Bizkaia	014524	CPEIPS San Nikolas Ikastola HLBHIP	80,17	76.775,62	19.193,91	57.581,71
Bizkaia	014526	CPEIPS San Fidel Ikastola HLBHIP	60,67	58.100,47	14.525,12	43.575,35
Bizkaia	014527	CPEIPS Seber Altube Ikastola HLBHIP	69,33	66.400,53	16.600,13	49.800,40
Bizkaia	014530	CPEIPS Resurrección M. De Azkue Ikastola HLBHIP	39,00	37.350,30	9.337,58	28.012,72
Bizkaia	014531	CPEIPS Bera-Kruz Ikastola HLBHIP	34,67	33.200,27	8.300,07	24.900,20
Bizkaia	014537	CPEIPS Larramendi Ikastola HLBHIP	26,00	24.900,20	6.225,05	18.675,15
Bizkaia	014543	CPEIPS Zubi-Zahar Ikastola HLBHIP	30,33	29.050,23	7.262,56	21.787,67
Bizkaia	014544	CPEIPS Asti-Leku Ikastola HLBHIP	169,00	161.851,30	40.462,83	121.388,47
Bizkaia	014549	CPEIPS Itxaropena Ikastola HLBHIP	45,50	43.575,35	10.893,84	32.681,51
Bizkaia	014550	CPEIPS Bihotz Gaztea Ikastola HLBHIP	95,33	91.300,73	22.825,18	68.475,55
Bizkaia	014553	CPEIPS Ander Deuna Ikastola HLBHIP	49,83	47.725,38	11.931,35	35.794,03
Bizkaia	014554	CPEIPS Zubi-Zaharra Ikastola HLBHIP	82,33	78.850,63	19.712,66	59.137,97
Bizkaia	014561	CPEIPS Lauro Ikastola HLBHIP	58,50	56.025,45	14.006,36	42.019,09
Bizkaia	014566	CPEIPS El Carmelo HLBHIP	62,83	60.175,48	15.043,87	45.131,61
Bizkaia	014567	CPEIPS Karmengo Ama HLBHIP	60,67	58.100,47	14.525,12	43.575,35
Bizkaia	014575	CPEIPS El Regato HLBHIP	54,17	51.875,42	12.968,86	38.906,56
Bizkaia	014578	CPEIPS La Inmaculada M.S.J.O. HLBHIP	88,83	85.075,68	21.268,92	63.806,76
Bizkaia	014582	CPEIPS Ntra. Sra. De Begoña HLBHIP	49,83	47.725,38	11.931,35	35.794,03
Bizkaia	014583	CPEIPS Ntra. Sra. Del Rosario HLBHIP	125,67	120.350,97	30.087,74	90.263,23
Bizkaia	014586	CPEIPS San Juan Bosco HLBHIP	71,50	68.475,55	17.118,89	51.356,66
Bizkaia	014587	CPEIPS Salesianos Barakaldo HLBHIP	60,67	58.100,47	14.525,12	43.575,35
Bizkaia	014588	CPEIPS San Vicente De Paul HLBHIP	99,67	95.450,77	23.862,69	71.588,08
Bizkaia	014595	CPEIPS Cooperativa Basauri HLBHIP	104,00	99.600,80	24.900,20	74.700,60
Bizkaia	014597	CPEIPS San Jose LBHIP	84,50	80.925,65	20.231,41	60.694,24
Bizkaia	014598	CPEI Sta. María De La Providencia HHIP	21,67	20.750,17	5.187,54	15.562,63
Bizkaia	014602	CPEIPS Sagrado Corazón HLBHIP	73,67	70.550,57	17.637,64	52.912,93
Bizkaia	014618	CPEIPS Amor Misericordioso HLBHIP	177,67	170.151,37	42.537,84	127.613,53
Bizkaia	014619	CPEIPS Ángeles Custodios HLBHIP	101,83	97.525,78	24.381,45	73.144,33
Bizkaia	014629	CPEIPS Berrio-Otxoa HLBHIP	123,50	118.275,95	29.568,99	88.706,96
Bizkaia	014630	CPEIPS Calasancio HLBHIP	106,17	101.675,82	25.418,96	76.256,86
Bizkaia	014637	CPEIPS El Ave María HLBHIP	91,00	87.150,70	21.787,68	65.363,02
Bizkaia	014639	CPEIPS El Salvador HLBHIP	110,50	105.825,85	26.456,46	79.369,39

2021eko urriaren 1a, ostirala

Lurraldea	Kodea	Ikastetxea	Orduak, guztira	Guztira €	€ 2021 %25	€ 2022 %75
Bizkaia	014641	CPEIPS Esclavas Sc - Fátima HLBHIP	28,17	26.975,22	6.743,81	20.231,41
Bizkaia	014647	CPEIPS Hijas De La Caridad-N. Sra De Begoña HLBHIP	156,00	149.401,20	37.350,30	112.050,90
Bizkaia	014651	CPEIPS Ikasbide HLBHIP	97,50	93.375,75	23.343,94	70.031,81
Bizkaia	014653	CPEI Iparragirre Ikastola HHIP	49,83	47.725,38	11.931,35	35.794,03
Bizkaia	014655	CPEIPS Jesús María HLBHIP	123,50	118.275,95	29.568,99	88.706,96
Bizkaia	014657	CPEIPS Jesuitinas Bilbao La Inmaculada HLBHIP	45,50	43.575,35	10.893,84	32.681,51
Bizkaia	014658	CPEIPS La Salle Bilbao HLBHIP	99,67	95.450,77	23.862,69	71.588,08
Bizkaia	014663	CPEIPS Madre De Dios HLBHIP	75,83	72.625,58	18.156,40	54.469,18
Bizkaia	014676	CPEPS Jesuitak Indautxu LBHIP	67,17	64.325,52	16.081,38	48.244,14
Bizkaia	014677	CPEIPS Ntra. Sra. Del Carmen HLBHIP	21,67	20.750,17	5.187,54	15.562,63
Bizkaia	014678	CPEIPS Ntra. Sra. Del Pilar HLBHIP	104,00	99.600,80	24.900,20	74.700,60
Bizkaia	014685	CPEIPS Pureza De María HLBHIP	84,50	80.925,65	20.231,41	60.694,24
Bizkaia	014689	CPEIPS Sagrado Corazón HLBHIP	75,83	72.625,58	18.156,40	54.469,18
Bizkaia	014692	CPEI San Jose-Urdaneta HHIP	34,67	33.200,27	8.300,07	24.900,20
Bizkaia	014698	CPEIPS San Pedro Apostol HLBHIP	56,33	53.950,43	13.487,61	40.462,82
Bizkaia	014704	CPES Sta. María De Artagan BHIP	26,00	24.900,20	6.225,05	18.675,15
Bizkaia	014709	CPEIPS Trueba De Artaxanda HLBHIP	41,17	39.425,32	9.856,33	29.568,99
Bizkaia	014726	CPEIPS Nevers Ikastetxea HLBHIP	75,83	72.625,58	18.156,40	54.469,18
Bizkaia	014727	CPEIPS San Antonio Ikastetxea HLBHIP	49,83	47.725,38	11.931,35	35.794,03
Bizkaia	014729	CPEIPS San Jose-Jesuitak HLBHIP	78,00	74.700,60	18.675,15	56.025,45
Bizkaia	014732	CPEPS Lourdesko Ama LBHIP	52,00	49.800,40	12.450,10	37.350,30
Bizkaia	014733	CPEIP Eskolabarri HLBHIP	26,00	24.900,20	6.225,05	18.675,15
Bizkaia	014737	CPEIPS San Pelayo HLBHIP	28,17	26.975,22	6.743,81	20.231,41
Bizkaia	014742	CPEIPS Azkorri HLBHIP	39,00	37.350,30	9.337,58	28.012,72
Bizkaia	014750	CPEIPS Madre Del Divino Pastor HLBHIP	13,00	12.450,10	3.112,53	9.337,57
Bizkaia	014751	CPEIPS Ntra. Sra. De Europa HLBHIP	82,33	78.850,63	19.712,66	59.137,97
Bizkaia	014754	CPEIPS Santísima Trinidad HLBHIP	45,50	43.575,35	10.893,84	32.681,51
Bizkaia	014761	CPEIPS Avellaneda HLBHIP	52,00	49.800,40	12.450,10	37.350,30
Bizkaia	014765	CPEIPS Sta. María Del Socorro HLBHIP	30,33	29.050,23	7.262,56	21.787,67
Bizkaia	014766	CPEIPS Claret Askartza HLBHIP	82,33	78.850,63	19.712,66	59.137,97
Bizkaia	014767	CPEIPS B.V. María HLBHIP	80,17	76.775,62	19.193,91	57.581,71
Bizkaia	014768	CPEIPS Gaztelueta HLBHIP	69,33	66.400,53	16.600,13	49.800,40
Bizkaia	014769	CPEIPS Ntra. Sra. De Las Mercedes HLBHIP	101,83	97.525,78	24.381,45	73.144,33
Bizkaia	014777	CPEIPS Fundación Escuelas Ventades HLBHIP	41,17	39.425,32	9.856,33	29.568,99
Bizkaia	014778	CPEIP San Juan Bautista HLBHIP	99,67	95.450,77	23.862,69	71.588,08
Bizkaia	014779	CPIFP Somorrosto LHPI	19,50	18.675,15	4.668,79	14.006,36

2021eko urriaren 1a, ostirala

Lurraldea	Kodea	Ikastetxea	Orduak, guztira	Guztira €	€ 2021 %25	€ 2022 %75
Bizkaia	014786	CPEIPS Ntra. Sra. De La Antigua HLBHIP	52,00	49.800,40	12.450,10	37.350,30
Bizkaia	014792	CPEIPS Ntra. Sra. Del Carmen HLBHIP	73,67	70.550,57	17.637,64	52.912,93
Bizkaia	014796	CPEIPS Sta. María HLBHIP	134,33	128.651,03	32.162,76	96.488,27
Bizkaia	014797	CPES Xabier BHIP	13,00	12.450,10	3.112,53	9.337,57
Bizkaia	014800	CPEIPS Franciscanas De Montpellier HLBHIP	67,17	64.325,52	16.081,38	48.244,14
Bizkaia	014808	CPEIPS San Francisco Javier HLBHIP	49,83	47.725,38	11.931,35	35.794,03
Bizkaia	014809	CPEIPS San Jose HLBHIP	112,67	107.900,87	26.975,22	80.925,65
Bizkaia	014811	CPEIP Sta. Eulalia HLHIP	47,67	45.650,37	11.412,59	34.237,78
Bizkaia	014812	CPEIPS Sta. Maria-Hijas De La Cruz HLBHIP	95,33	91.300,73	22.825,18	68.475,55
Bizkaia	014816	CPEIPS San Felix Ikastola HLBHIP	80,17	76.775,62	19.193,91	57.581,71
Bizkaia	014817	CPEIPS Amor Misericordioso HLBHIP	78,00	74.700,60	18.675,15	56.025,45
Bizkaia	014820	CPEIPS Begoñako Andra Mari HLBHIP	184,17	176.376,42	44.094,11	132.282,31
Bizkaia	014828	CPEIPS Maristas-San Miguel HLBHIP	73,67	70.550,57	17.637,64	52.912,93
Bizkaia	014833	CPEIPS Ntra. Sra. De La Merced HLBHIP	54,17	51.875,42	12.968,86	38.906,56
Bizkaia	014838	CPEIPS Jado HLBHIP	60,67	58.100,47	14.525,12	43.575,35
Bizkaia	014844	CPEIPS Ayalde HLBHIP	28,17	26.975,22	6.743,81	20.231,41
Bizkaia	014848	CPEPS Munabe LBHIP	28,17	26.975,22	6.743,81	20.231,41
Bizkaia	014849	CPEIPS Padre Andrés Urdaneta HLBHIP	136,50	130.726,05	32.681,51	98.044,54
Bizkaia	014854	CPEIPS Vizcaya HLBHIP	114,83	109.975,88	27.493,97	82.481,91
Bizkaia	014951	CPEIPS Alazne HLBHIP	69,33	66.400,53	16.600,13	49.800,40
Bizkaia	015064	CPEIPS Betiko Ikastola HLBHIP	34,67	33.200,27	8.300,07	24.900,20
Bizkaia	015189	CPEIPS Elorrioko Txintxirri Ikastola HLBHIP	17,33	16.600,13	4.150,03	12.450,10
Bizkaia	015208	CPEI Umedi HHIP	54,17	51.875,42	12.968,86	38.906,56
Bizkaia	015833	CPES Otxarkoaga BHIP	338,00	323.702,60	80.925,65	242.776,95
Bizkaia	015845	CPEIPS Salesianos Deusto HLBHIP	93,17	89.225,72	22.306,43	66.919,29
Bizkaia	015854	CPES Centro De Formacion Somorrostro BHIP	110,50	105.825,85	26.456,46	79.369,39
Bizkaia	015870	CPEIPS Centro San Viator HLBHIP	130,00	124.501,00	31.125,25	93.375,75
Bizkaia	015871	CPEIPS Calasanz Santurtzi HLBHIP	84,50	80.925,65	20.231,41	60.694,24
Gipuzkoa	012309	CPEIPS Aita Laramendi Ikastola HLBHIP	158,17	151.476,22	37.869,06	113.607,16
Gipuzkoa	012328	CPEIPS Elgoibar Ikastola HLBHIP	36,83	35.275,28	8.818,82	26.456,46
Gipuzkoa	012331	CPEPS Almen Ikastola LBHIP	21,67	20.750,17	5.187,54	15.562,63
Gipuzkoa	012336	CPEIPS Uzturpe Ikastola HLBHIP	21,67	20.750,17	5.187,54	15.562,63
Gipuzkoa	012339	CPEIP Irura Ikastola HLHIP	39,00	37.350,30	9.337,58	28.012,72
Gipuzkoa	012341	CPEIPS San Benito Ikastola HLBHIP	160,33	153.551,23	38.387,81	115.163,42
Gipuzkoa	012342	CPEIPS Haztegi Ikastola HLBHIP	21,67	20.750,17	5.187,54	15.562,63
Gipuzkoa	012345	CPEIPS San Frantzisko Xabier HLBHIP	52,00	49.800,40	12.450,10	37.350,30

2021eko urriaren 1a, ostirala

Lurraldea	Kodea	Ikastetxea	Orduak, guztira	Guztira €	€ 2021 %25	€ 2022 %75
Gipuzkoa	012346	CPEIPS Gaztelupe-Arimazubi Ikastola HLBHIP	21,67	20.750,17	5.187,54	15.562,63
Gipuzkoa	012347	CPEI Ume-Zaintza Ikastola HHIP	21,67	20.750,17	5.187,54	15.562,63
Gipuzkoa	012349	CPEIPS Txantxiku Ikastola HLBHIP	45,50	43.575,35	10.893,84	32.681,51
Gipuzkoa	012350	CPEIPS Orio Ikastola HLBHIP	88,83	85.075,68	21.268,92	63.806,76
Gipuzkoa	012352	CPEIPS Haurtzaro Ikastola HLBHIP	78,00	74.700,60	18.675,15	56.025,45
Gipuzkoa	012353	CPEIPS Pasaia-Lezo Lizeoa HLBHIP	108,33	103.750,83	25.937,71	77.813,12
Gipuzkoa	012357	CPEIPS Orereta HLBHIP	78,00	74.700,60	18.675,15	56.025,45
Gipuzkoa	012361	CPEIPS Axular Lizeoa HLBHIP	21,67	20.750,17	5.187,54	15.562,63
Gipuzkoa	012363	CPEIPS Ekintza HLBHIP	34,67	33.200,27	8.300,07	24.900,20
Gipuzkoa	012364	CPEIPS Herri-Ametsa Ikastola HLBHIP	104,00	99.600,80	24.900,20	74.700,60
Gipuzkoa	012370	CPEIPS Sto. Tomás Lizeoa HLBHIP	41,17	39.425,32	9.856,33	29.568,99
Gipuzkoa	012372	CPEIPS Zurriola Ikastola HLBHIP	108,33	103.750,83	25.937,71	77.813,12
Gipuzkoa	012375	CPEIPS Usabalgo Laskorain Ikastola HLBHIP	82,33	78.850,63	19.712,66	59.137,97
Gipuzkoa	012378	CPEIPS Udarregi HLBHIP	56,33	53.950,43	13.487,61	40.462,82
Gipuzkoa	012379	CPEIPS Aranzadi Ikastola HLBHIP	34,67	33.200,27	8.300,07	24.900,20
Gipuzkoa	012380	CPEIPS Mariaren Lagundia Ikastola HLBHIP	23,83	22.825,18	5.706,30	17.118,88
Gipuzkoa	012381	CPEIPS Zubimusu Ikastola-Villabona HLBHIP	21,67	20.750,17	5.187,54	15.562,63
Gipuzkoa	012382	CPEIPS Jakintza Ikastola HLBHIP	47,67	45.650,37	11.412,59	34.237,78
Gipuzkoa	012384	CPEIPS Urretxu-Zumarraga Ikastola HLBHIP	119,17	114.125,92	28.531,48	85.594,44
Gipuzkoa	012386	CPEIPS Salbatore Mitxelena HLBHIP	75,83	72.625,58	18.156,40	54.469,18
Gipuzkoa	012399	CPEIPS San Jose De Floreaga HLBHIP	86,67	83.000,67	20.750,17	62.250,50
Gipuzkoa	012404	CPEIPS Iraurgi HLBHIP	108,33	103.750,83	25.937,71	77.813,12
Gipuzkoa	012411	CPEIPS La Salle-San Jose HLBHIP	134,33	128.651,03	32.162,76	96.488,27
Gipuzkoa	012428	CPEIPS Ama Guadalupekoa HLBHIP	86,67	83.000,67	20.750,17	62.250,50
Gipuzkoa	012430	CPEIPS Egiluze Hijas De La Cruz Hondarribia HLBHIP	71,50	68.475,55	17.118,89	51.356,66
Gipuzkoa	012432	CPEIPS La Inmaculada HLBHIP	56,33	53.950,43	13.487,61	40.462,82
Gipuzkoa	012438	CPEIPS El Pilar-Cia. De María HLBHIP	82,33	78.850,63	19.712,66	59.137,97
Gipuzkoa	012439	CPEIPS Erain LBHIP	26,00	24.900,20	6.225,05	18.675,15
Gipuzkoa	012444	CPEIPS San Vicente De Paul HLBHIP	114,83	109.975,88	27.493,97	82.481,91
Gipuzkoa	012458	CPEIP San Miguel Arcángel HLHIP	13,00	12.450,10	3.112,53	9.337,57
Gipuzkoa	012471	CPEIPS Egiluze Hijas De La Cruz Erreterria HLBHIP	125,67	120.350,97	30.087,74	90.263,23
Gipuzkoa	012473	CPEIPS Sagrado Corazón HLBHIP	67,17	64.325,52	16.081,38	48.244,14
Gipuzkoa	012497	CPIFP Cebanc LHIPI	8,67	8.300,07	2.075,02	6.225,05
Gipuzkoa	012504	CPEIPS Mary Ward HLBHIP	78,00	74.700,60	18.675,15	56.025,45
Gipuzkoa	012505	CPEIPS Aldapeta Maria HLBHIP	156,00	149.401,20	37.350,30	112.050,90

2021eko urriaren 1a, ostirala

Lurraldea	Kodea	Ikastetxea	Orduak, guztira	Guztira €	€ 2021 %25	€ 2022 %75
Gipuzkoa	012507	CPEIPS Eskibel HLBHIP	30,33	29.050,23	7.262,56	21.787,67
Gipuzkoa	012512	CPEIPS La Anunciata HLBHIP	26,00	24.900,20	6.225,05	18.675,15
Gipuzkoa	012513	CPEIPS La Asunción HLBHIP	69,33	66.400,53	16.600,13	49.800,40
Gipuzkoa	012514	CPEIPS La Salle HLBHIP	106,17	101.675,82	25.418,96	76.256,86
Gipuzkoa	012516	CPEIPS Salesianos Donostia HLBHIP	56,33	53.950,43	13.487,61	40.462,82
Gipuzkoa	012518	CPEIPS Manuel De Larramendi HLBHIP	73,67	70.550,57	17.637,64	52.912,93
Gipuzkoa	012519	CPEIPS María Reina Eskola HLBHIP	82,33	78.850,63	19.712,66	59.137,97
Gipuzkoa	012523	CPEIPS Scientia School HLBHIP	67,17	64.325,52	16.081,38	48.244,14
Gipuzkoa	012525	CPEIPS Ntra. Sra. De Aránzazu HLBHIP	75,83	72.625,58	18.156,40	54.469,18
Gipuzkoa	012532	CPEIPS Presentación De María HLBHIP	65,00	62.250,50	15.562,63	46.687,87
Gipuzkoa	012536	CPEIPS Deutsche Schule San Alberto Magno HLBHIP	93,17	89.225,72	22.306,43	66.919,29
Gipuzkoa	012537	CPEIPS San Ignacio De Loyola HLBHIP	112,67	107.900,87	26.975,22	80.925,65
Gipuzkoa	012540	CPEIP San José (Escuela Asilo) HLBHIP	73,67	70.550,57	17.637,64	52.912,93
Gipuzkoa	012542	CPEIPS San Luis-La Salle HLBHIP	62,83	60.175,48	15.043,87	45.131,61
Gipuzkoa	012545	CPEIPS San Patricio HLBHIP	39,00	37.350,30	9.337,58	28.012,72
Gipuzkoa	012547	CPEIPS Sta. Teresa HLBHIP	47,67	45.650,37	11.412,59	34.237,78
Gipuzkoa	012549	CPEIPS Sagrado Corazón HLBHIP	36,83	35.275,28	8.818,82	26.456,46
Gipuzkoa	012550	CPEIPS Inglés HLBHIP	73,67	70.550,57	17.637,64	52.912,93
Gipuzkoa	012568	CPEIP Herrikide Jesuitinak HLBHIP	112,67	107.900,87	26.975,22	80.925,65
Gipuzkoa	012571	CPEIP Magale Presentación De María HLBHIP	86,67	83.000,67	20.750,17	62.250,50
Gipuzkoa	012581	CPIFP Goierri LHIP	13,00	12.450,10	3.112,53	9.337,57
Gipuzkoa	012585	CPEIPS Antoniano Ikastetxea HLBHIP	78,00	74.700,60	18.675,15	56.025,45
Gipuzkoa	012586	CPEIPS La Salle-San José HLBHIP	169,00	161.851,30	40.462,83	121.388,47
Gipuzkoa	012592	CPEIPS La Salle-Legazpi HLBHIP	99,67	95.450,77	23.862,69	71.588,08
Gipuzkoa	012594	CPEIPS Zumaiena HLBHIP	93,17	89.225,72	22.306,43	66.919,29
Gipuzkoa	012978	CPEIPS Azpeitiko Ikastola-Ikasberri Koop. HLBHIP	34,67	33.200,27	8.300,07	24.900,20
Gipuzkoa	012991	CPEIPS Elkar Hezi HLBHIP	32,50	31.125,25	7.781,31	23.343,94
Gipuzkoa	012996	CPEIPS Beasain Ikastola HLBHIP	82,33	78.850,63	19.712,66	59.137,97
Gipuzkoa	013506	CPEIP Pasaia-Lezo Lizeoa HLBHIP	13,00	12.450,10	3.112,53	9.337,57
Gipuzkoa	013583	CPEIPS La Salle Berrozpe Ikastetxea HLBHIP	169,00	161.851,30	40.462,83	121.388,47
Gipuzkoa	013584	CPES Magale Salestarrak BHIP	47,67	45.650,37	11.412,59	34.237,78
Gipuzkoa	013586	CPEIPS Irungo La Salle HLBHIP	71,50	68.475,55	17.118,89	51.356,66
			15.726,16	15.023.114,33	3.755.778,85	11.267.335,48

2021eko urriaren 1a, ostirala

AKORDIOAREN II. ERANSKINA
DIRUZ LAGUNDUTAKO GASTUEN AURREIKUSPEN-MEMORIA**Ikastetxearen kodea:****Ikastetxea:****Lurralde historikoa:****Honakoa doa atxikita:**

Kontratutako HLE langileen zerrenda zehatza, honako hauek barne:

- Izen-abizenak.
- Pertsona bakoitza zer lanalditarako kontratatu den (edo ordu gehigarriak, lanaldia lehendik dauden langileentzat luzatu bada)
- Zein hizkuntza-eredutan egingo duen lan.
- Titulazioa.
- Zer hizkuntza-eskakizun dagokion.

Kontratutako HLE langileen titulazioa egiaztatzen duen dokumentazioa.

Kontratutako HLE langileen hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko dokumentazioa

Kontratutako HLE langileen kontratuak.

Kontratutako langileek sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik epai irmoz kondenarik ez dutela egiaztatzeko dokumentazioa.

.....(e)n, 2021eko
.....aren(e)(a)n

Titularra/Ordezkarria

2021eko urriaren 1a, ostirala

AKORDIOAREN III. ERANSKINA
AMAIERAKO JUSTIFIKAZIO-MEMORIA**Ikastetxearen kodea:****Ikastetxea:****Lurralde historikoa:****Honakoa doa atxikita:**

Diruz lagundu den kontratazioari dagozkion gastuen eta sarreraren balantzea, dirulaguntza jaso duen ikastetxe pribatu itunduaren idazpurua daraman paperean eta haren legezko ordezkariak sinatuta.

Nominak eta Gizarte Segurantzako kotizazio-buletinak, egindako gastuen baliokideak, inondik ere.

Zinpeko aitorten esplizitua, diruz lagundutako kontrataziorako beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jasotako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuei buruzkoa. Baiezkoan, dirulaguntza ematen duen erakundearen izena eta zenbatekoa adierazi beharko dira, dirulaguntza jasotzen duen itunpeko ikastetxe pribatuaren idazpurudun paperean, haren legezko ordezkariak sinatuta.

.....(e)n, 2022ko
.....aren(e)(a)n

Titularra/Ordezkaria